Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

EIBAR
Udala | Ayuntamiento

EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA WWW.NORADOAZNIREZERGAK.EIBAR.EUS WEBGUNEAREN HOSTING, MANTENTZE ETA EGUNERATZE ZERBITZUA EMATEA KONTRATATZEKO

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE HOSTING, MANTENIMIENTO Y ACTUALIZACIÓN DE LA WEB WWW.DONDEVANMISIMPUESTOS.EIBAR.EUS

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Baldintza teknikoen agiri honen helburua da WWW.NORADOAZNIREZERGAK.EIBAR.EUS WEBGUNEAREN HOSTING, MANTENTZE ETA EGUNERATZE ZERBITZUAREN kontratazioak bete behar dituen eskakizunak eta baldintzak ezartzea.

Proiektu honen helburua da Eibarko Udaleko aurrekontuen bisualizazio bat eskaintzea, aldez aurretik esperientziarik ez duten pertsonek ulertzeko bezain intuitiboa, baina, aldi berean, aurrekontuaren elementu bakoitzaren xehetasunak eskuragarri jarriz gehiago sakondu nahi dutenentzat. Proiektuak aurrekontu osoaren errealitatea erakutsiko du, eta diru-sarreren eta gastuen alderdiak jasoko ditu, bai eta aurreikusitako kopuruak eta azkenean gauzatutakoak ere (betiere, informazioa eskuragarri badago).

2. ZERBITZUEN IRISMENA

Enpresa adjudikaziodunak honako zerbitzu hauek eman beharko ditu:

- Orain arte www.noradoaznirezergak.eus webgunean argitaratutako 2013 eta 2025 bitarteko aurrekontu-ekitaldiei dagozkien edukiak horretarako gaitutako beste web-plataforma batera migratzea, beharrezkoa izanez gero.

- Aurrekontuaren datuak (aurrekontu-exekuzioari eta fakturazioari dagozkionak) NDNZ (Nora doaz nire zergak) webgunean eguneratzea, hurrengo lau urteotan:

  - 2025 eta 2029 urteen arteko ekitaldien aurrekontu-egikaritzea hiru hilean

1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del presente pliego de prescripciones técnicas es establecer los requisitos y condiciones a los que debe ajustarse la contratación del "SERVICIO DE HOSTING, MANTENIMIENTO Y ACTUALIZACIÓN DE LA PÁGINA WEB WWW.DONDEVANMISIMPUESTOS.EIBAR.EUS (en euskera, WWW.NORADOAZNIREZERGAK.EUS).

El objetivo de este proyecto es ofrecer una visualización de los presupuestos del Ayuntamiento de Eibar, suficientemente intuitiva como para ser comprendida por personas sin experiencia previa, pero haciendo a la vez disponible los detalles de cada elemento del presupuesto para las personas interesadas en profundizar más. El proyecto muestra la realidad del presupuesto en su conjunto, cubriendo tanto el lado de los ingresos como el de los gastos, y tanto las cantidades previstas como las finalmente ejecutadas (en caso de que la información esté disponible).

2. ALCANCE DE LOS SERVICIOS

La empresa adjudicataria deberá prestar los siguientes servicios:

- Migración de los contenidos publicados, hasta la fecha, en la web www.dondevanmisimpuestos.eus (en euskera, www.noradoaznirezergak.eus), correspondientes a los ejercicios presupuestarios de entre 2013 y 2025, a otra plataforma web habilitada para tal efecto, en caso de que fuera necesario.

- Actualización de datos presupuestarios (de ejecución presupuestaria y de facturación) en la página web DVMI (Dónde van mis impuestos) durante los cuatro próximos años:

  - Actualización trimestral de la ejecución presupuestaria de los ejercicios

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **817d18f926f917aeaafd33c777c6382643a01d1a**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500003227**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
PEDRO IRUSTA MENDIETA	**08/07/2025 10:27:08**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

behin eguneratzea, kontratuak irauten duen bitartean.

- 2025 eta 2029 urteen arteko ekitaldien aurrekontu-likidazioa eguneratzea.

- 2025 eta 2029 urteen arteko ekitaldietarako aurrekontua eguneratzea.

- NDNZ Eibar webgunearen mantentze-zerbitzua hurrengo lau urteetan:

  - Enpresaren zerbitzarietan ostatatzea (hosting) 2025 eta 2029 urteen artean.

  - Softwarea NDNZ webgunearen azken bertsiora eguneratzea.

  - Laguntza tekniko iraunkorra eta aplikazioaren funtzionalitateen bermea hurrengo hiru urteetarako, kontratua sinatzen denetik.

- Hizkuntza anitzeko webgunea eta edukien itzulpena (gaztelania eta euskara)

Deskribapen funtzioanala:

Gastuaren bisualizazioa

Aplikazioak aurrekontuan jasotako gastu-programak erakutsi beharko ditu, gastu-politiken eta arloen arabera hierarkikoki multzokatuak, hobeto ulertu ahal izateko. Aurrekontuen gastua, ohi, hiru ardatz edo dimentsioren arabera sailkatzen da:

- Programen arabera, “zertan gastatzen da?”. Hauxe da sailkapenik intuitiboena bere dirua zertan gastatzen den jakin nahi duen herritar batentzat. Gastu-programen adibideak dira, esaterako "Babes Zibila", "Parkeak eta Lorategiak" edo "Kultur Sustapena".

- Sailkapen ekonomikoa, “Nola gastatzen da?”. Gastu oro kategoria estandarizatuetan sailka daiteke kontabilitatearen ikuspegitik, hala nola "Funtzionarioen Soldatak", "Beste erakunde batzuei egindako kapital-transferentziak" edo "Errentamenduak”.

- Sailkapen organikoa, “Nork gastatzen du?”, programa bat banakatzen duena kudeatzen duen erakundearen arabera. Programa bat erabat kontrolatu dezake unitate politiko administratibo zehatz batek edo unitate batek baino gehiagok. Hauxe da agian herritar batentzat garrantzi gutxien duen kategoria, eta gehien alda daitekeena urteetan zehar administrazioaren barne-

comprendidos entre 2025 y 2029, durante la duración del contrato.

- Actualización de la liquidación presupuestaria de los ejercicios comprendidos entre 2025 y 2029.

- Actualización del presupuesto para los ejercicios comprendidos entre 2025 y 2029.

- Mantenimiento de la web DVMI Eibar durante los cuatro próximos años:

  - Alojamiento en servidores (hosting) de la empresa entre 2025 y 2029.

  - Actualización del software a la última versión disponible de DVMI.

  - Asistencia técnica permanente y garantía de las funcionalidades de la aplicación durante los tres próximos años, a partir de la firma del contrato.

- Web multi-idioma y traducción de contenidos (castellano y euskera)

Descripción funcional:

Visualización del gasto

La aplicación deberá mostrar los programas de gasto presupuestados, agrupados jerárquicamente en políticas y áreas de gasto para su mejor comprensión. El gasto de unos presupuestos se clasifica tradicionalmente según tres ejes o dimensiones:

- Por programas, “¿en qué se gasta?”. Esta es la clasificación más intuitiva para un ciudadano, que quiere saber a qué se destina su dinero. Son ejemplos de programas de gastos “Protección Civil”, “Parques y Jardines” o “Promoción Cultural”.

- Clasificación económica, “¿cómo se gasta?”. Todo gasto puede clasificarse desde un punto de vista contable en categorías estandarizadas como “Salarios de funcionarios”, “Transferencias de capital a otras entidades” o “Arrendamientos”.

- Clasificación orgánica, “¿quién gasta?”, que desglosa un programa dado en función del organismo que lo gestiona. Un programa puede ser controlado totalmente por una unidad político-administrativa concreta, o puede pertenecer a varias. Esta es tal vez la categoría menos relevante para un ciudadano, y la que más puede cambiar a lo largo de los años como consecuencia de reestructuraciones

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **817d18f926f917aeaafd33c777c6382643a01d1a**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500003227**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
PEDRO IRUSTA MENDIETA	**08/07/2025 10:27:08**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

berregituraketen ondorioz edo entitateen izen-aldaketen eraginez.

Aplikazioak, lehenik, aurrekontuen laburpen bat erakutsi behar du sailkapen funtzionala erabiliz; eta, xehetasun mailan jaitsiz, gastu-politikak adierazi, lau arlo handitan multzokatuz.

Bisualizazioaren beheko aldeko kontrolek aukera eman behar diote erabiltzaileari hainbat alderdi menderatzeko, hala nola erakutsi beharreko urtea, edo kopuruak aurkezteko modua:

- Kopuru nominalak, alegia, jatorrizko aurrekontuan agertzen diren bezala.
- Kopuru errealak, kopuru nominalak defektuz orainaldira eguneratzeko modua, inflazio ofiziala erabiliz.
- Per cápita kopuruak, kopuru errealak biztanle-kopuruaz zatituta.
- Kopuru portzentualak aurrekontu osoarekiko.

Webgunearen beheko aldean taula-formatuan erakutsi behar da zer datutan oinarritzen den bisualizazioa, programen araberako banakatzea sartuta. Politiken eta programen tituluak orrietarako estekak dira, non programa bakoitzaren xehetasunak erakusten diren.

Diru-sarreren bisualizazioa

Aplikazioak, gastuekin egiten dugunaren antzera, aurrekontuan aurreikusitako diru-sarrerak bisualizatu beharko ditu, tasek, tributuek eta Estatuaren diru-sarreretako partaidetzak jarduera publikoa zer neurritan sustengatzen duten ulertaraziz.

Diru-sarreren sailkapenak gastuenen antzekoak dira, alde txikiren batekin: Bi sailkapen daude:

- Ekonomikoa, diru-sarrera motaren arabera (tasa, zeharkako zerga, ondareagatiko diru-sarrerak…).
- Organikoa, diru-sarrera jasotzen duen erakundean oinarritua.

Aurrekontuak bisualizatzeko, lehenik, sailkapen ekonomikoa erabili beharko da; batetik, intuitiboagoa delako herritarrarentzat, eta, bestetik, herritarrak interes handiagoa duelako diru-sarreraren kontzeptua ezagutzeko, hura jaso eta gestionatzen duen erakundeak baino.

Aurrekontua Vs Egikaritzea

internasde la administración o cambios de nombre de organismos.

La aplicación deberá mostrar, en primer lugar, un resumen de los presupuestos, utilizando una clasificación funcional, bajando a nivel de detalle de las políticas de gasto, agrupadas en cuatro grandes áreas.

Una serie de controles en la parte inferior de la visualización debe permitir al usuario controlar distintos aspectos de ésta, como el año a mostrar, o la forma de presentar las cantidades:

- Cantidades nominales, es decir, tal y como aparecen el presupuesto original.
- Cantidades reales, el modo por defecto, en el que las cantidades nominales son actualizadas al presente utilizando la inflación oficial.
- Cantidades per cápita, dividiendo las cantidades reales por el número de habitantes.
- Cantidades porcentuales respecto al total del presupuesto.

En la parte inferior de la página se deben mostrar en formato de tabla los datos en los que se basa la visualización, incluyendo también el desglose en programas. Los títulos de las políticas y los programas son enlaces a páginas que muestran en detalle cada uno de ellos.

Visualización de los ingresos

La aplicación deberá visualizar los ingresos previstos en el presupuesto de forma similar a como hacemos con los gastos, ayudando a entender en qué medida las distintas tasas, tributos y la participación en los ingresos del Estado sustentan la actividad pública.

Las clasificaciones de los ingresos son similares a las de los gastos, con alguna pequeña diferencia. Existen dos clasificaciones:

- La económica en función del tipo de ingreso (tasa, impuesto indirecto, ingresospatrimoniales...).
- La orgánica, basada en el organismo que recibe el ingreso.

Para visualizar los Presupuestos se deberá utilizar, en primer lugar, la clasificación económica, por ser más intuitiva para el ciudadano, que además tiene más interés en conocer el concepto del ingreso que el organismo que lo recibe y gestiona.

Presupuesto Vs Ejecución

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **817d18f926f917aeaafd33c777c6382643a01d1a**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500003227**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
PEDRO IRUSTA MENDIETA	**08/07/2025 10:27:08**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Aurrekontu publikoak, definizioz, etorkizuneko diru-sarreren eta gastuen estimazio bat dira. Nahiz eta informazio hori erabilgarria eta garrantzitsua izan, oso baliotsua da baita ere aurrekontu-egikaritzearen datu errealak erakutsi ahal izatea: bai diru-sarrerei dagokienez, bai gastuari dagokionez. Beraz, aplikazioak prestatuta egon beharko du bai aurrekontuetan jasotako aurreikuspenak bai aurrekontu-egikaritzearen datu errealak erakusteko denboran zehar, haiek eskuragarri egon bezain laster.

Unos presupuestos públicos son por definición una estimación de ingresos y gastos futuros. Si bien está información es útil e importante, es también muy valioso poder mostrar datos reales de ejecución presupuestaria: tanto por el lado de los ingresos como por el lado del gasto. Por tanto, la aplicación deberá estar preparada para mostrar tanto las previsiones contenidas de los presupuestos como los datos reales de ejecución presupuestaria a lo largo del tiempo en cuanto éstos estén disponibles.

Programen banakatze xehatua

Desglose detallado de programas

Erakunde publiko baten aurrekontuek xehetasun gehiago dituzte ohiko bisualizazioetan erakusten dena baino; ohiko bisualizazioak gastuaren arlo edo politika mailan (Osasuna vs Heziketa) geratu ohi dira, edo, gehienez ere, programa mailan (esaterako, “Antzerkia” vs. “Liburutegiak”, Kultur arloaren barruan). Aldiz, Eibarko Udalaren aplikazioak gauza izan behar du gastu-programa bakoitzaren banakatze xehatua eta haren azken urteetako bilakaera edozein interesduni erakusteko.

Los presupuestos de un organismo público contienen más detalle del que suele mostrarse en visualizaciones tradicionales, que tienden a quedarse en el nivel de área o política de gasto (Sanidad vs. Educación) o, como mucho, en el nivel de programa (“Teatro” vs. “Bibliotecas”, dentro del área de Cultura, por ejemplo). En cambio, la aplicación del Ayuntamiento de Eibar debe ser capaz de mostrar el desglose detallado de cada programa de gasto y su evolución durante los últimos años a cualquier persona interesada.

Hala, politika baten xehetasun-orrira jotzean, esaterako, “Oinarrizko Azpiegiturak eta Garraioa” banakatze xehatua ikusi beharko da, gorago aipatutako sailkapen bakoitzaren arabera. Lehenik, politika bisualizatu beharko da hainbat programatan banakatua, eta haren bilakaera denboran zehar.

Así, al acceder a la página de detalle de una política, como puede ser “Infraestructuras Básicas y Transporte”, se deberá ver el desglose detallado según cada una de las clasificaciones mencionadas anteriormente. Se deberá visualizar, en primer lugar, el desglose de la política en distintos programas, y su evolución a lo largo del tiempo.

Berriz ere, grafikoetan erakutsitako datu guztiek eskuragarri egon beharko dute taula-formatuan, pantailaren behealdean, Aurrekontuen jatorrizko lerroetako bakoitza erakusteraino.

De nuevo, todos los datos mostrados en las gráficas deberán estar disponibles en forma de tablaen la parte inferior de la pantalla, llegando a mostrar cada una de las líneas originales delos Presupuestos.

Sailkapen funtzionalarekin bezala (“Zertan gastatzen da?”), politika edo programa bat egin beharko da sailkapen ekonomikoaren irizpideak erabiliz (“Nola gastatzen da?”). Alegia, dirua inbertsioak egiteko, gastu arrunta finantzatzeko edo soldatak ordaintzeko erabiltzen da.

De forma equivalente a la clasificación funcional (“¿En qué se gasta?”), se deberá descomponer una política o programa utilizando criterios de la clasificación económica (“¿Cómo se gasta?”). Es decir, se utiliza el dinero para realizar inversiones, financiar gasto común o pagar salarios.

Bilaketa

Búsqueda

Kontuan hartuta Aurrekontuek biltzen duten informazioa askotarikoa eta ugaria dela —bereziki haren programen eduki xehatura jotzeko gauza garenean—, garatutako aplikazioak bilaketa egiteko funtzio bat jarri beharko du, herritarrari aukera emango diona modu erraz eta sinplean hitz jakin bat (“liburutegia”, “hondakinak” …) biltzen duten Aurrekontuaren ildo guztietara jotzeko.

Dada la cantidad de información que incluyen unos Presupuestos -especialmente cuando somos capaces de acceder al contenido detallado de sus programas- la aplicación desarrollada deberá implementar una función de búsqueda que permite al ciudadano acceder rápidamente y de forma sencilla a todas las líneas del Presupuesto que incluyen una determinada palabra (“biblioteca”, “residuos”...).

Bilaketak hartzen duen espazioak gastuaren politikak eta programak jaso beharko ditu,

glosategia, eta aurrekontuaren ildo bakoitza (“kontzeptuak”).

El espacio cubierto por la búsqueda deberá incluir las políticas y programas de gasto, el glosario, y cada una de las líneas del presupuesto (“conceptos”).

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **817d18f926f917aeaafd33c777c6382643a01d1a**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500003227**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
PEDRO IRUSTA MENDIETA	**08/07/2025 10:27:08**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Informazioa berrerabiltzea

Aplikazioaren helburuetako bat da herritarrei edo interesdunei aurrekontuetako datuen analisia erraztea. Nahiz eta webguneak eskainitako bisualizazioek egin daitezkeen galdera gehienei erantzun, garrantzitsua da emandako datuak erraz esportatu eta berrerabiltzeko modukoak izatea.

Horretarako, aplikazioak modua emango du informazioa deskargatzeko formatu ireki eta berrerabilgarrietan, Open Data (Datu Irekiak) mugimenduaren printzipioei jarraituz.

Hala, modua eman beharko du gastuen eta diru-sarreren laburpen bat programa mailan deskargatzeko CSV fitxategi batean (Comma Separated Values, Kakotxek Bereizitako Balioak).

Eta, modu berean, politika edo programa espezifiko baterako, eskuragarri dauden sailkapenetako bakoitzerako.

Reutilización de la información

Uno de los objetivos de la aplicación es facilitar el análisis de los datos presupuestarios por parte de los ciudadanos o partes interesadas. Si bien las visualizaciones ofrecidas por la web respondan a una porción significativa de las preguntas que se puedan plantear, es importante que los datos ofrecidos sean fácilmente exportables y reutilizables.

Para ello, la aplicación ofrecerá la posibilidad de descargar la información en formatos abiertos y reutilizables, siguiendo los principios del movimiento Open Data (Datos Abiertos).

Así, deberá ser posible descargar un resumen de los gastos e ingresos a nivel de programa en un fichero CSV (Comma Separated Values, Valores Separados por Comas).

Y, de forma similar, para una política o programa específico, para cada una de las clasificaciones disponibles.

Zerbitzuaren eskakizun teknikoak:

Erabilitako teknologiak

Aplikazioa web teknologia modernoak erabiliz garatuko da, gailu mugikorrekin bateragarriak direnak (HTML5, CSS3 eta Javascript, zehatzago D3.js); beraz, ez da erabiliko Flash bezalako osagai jabedunik.

Kode osoa kode ireki gisa liberatu beharko da, ezagutza partekatuaren kultura sustatzeko eta gerora hura mantendu eta garatu ahal izateko.

Eskalabilitatea

Aplikazioak modua emango du denboran zehar agertzen joango diren aurrekontu-datu berriak jasotzeko Era horretan, aplikazioa plataforma bizi bat izango da, non aurrekontu-datu historikoen bilakaera erakutsiko baita.

Errendimendu-arazoak saihesteko, eta orriak erabiltzaile guztientzako berdinak direla aprobetxatuz, aplikazioak 'caching' tekniken erabilera intentsiboa egin beharko du; hala, erabiltzaileak eskatutako orriak azkar eta baliabide gutxi erabiliz eskuratuko dira, konplexuak izan arren.

Sare sozialak

Webguneak behar diren elementuak izango ditu, bidea emateko bisualizazio garrantzitsuenak (hala nola aurrekontu pertsonalizatua) Twitter edo Facebook bezalako 2.0 plataformetan partekatzeko

Requerimientos técnicos del servicio:

Tecnologías utilizadas

La aplicación deberá ser desarrollada utilizando tecnologías web modernas y compatibles con dispositivos móviles (HTML5, CSS3 y Javascript, en concreto D3.js), frente al uso de componentes propietarios como Flash.

Todo el código deberá ser liberado como código abierto, para promover la cultura del conocimiento compartido y facilitar su mantenimiento y desarrollo posterior.

Escalabilidad

La aplicación deberá ser capaz de incorporar los nuevos datos presupuestarios que vayan apareciendo a lo largo del tiempo. De esta manera, la aplicación será una plataforma viva en la que se muestre la evolución de los datos presupuestarios históricos.

Para evitar problemas de rendimiento, y aprovechando el hecho de que las páginas sean idénticas para todos los usuarios, la aplicación deberá hacer un uso intensivo de técnicas de ‘caching’, pudiendo así servir las páginas demandadas por el usuario rápidamente y con un bajo uso de recursos, a pesar de su complejidad.

Redes Sociales

La web deberá contar con elementos que permitan compartir las visualizaciones más importantes (como el presupuesto personalizado) en diferentes plataformas 2.0 como Twitter o Facebook.

3. ZERBITZUA EMATEA

3. PRESTACIÓN DEL SERVICIO

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **817d18f926f917aeaafd33c777c6382643a01d1a** Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500003227** **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**	
Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
PEDRO IRUSTA MENDIETA	**08/07/2025 10:27:08**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Kontratuaren adjudikaziodun ateratzen den enpresak bere erakundeko pertsona bat izendatuko du, Zerbitzuen Arduradunaren rola beteko duena, eta, aldi berean, hura osatzen duten gaien koordinatzailea izango dena.

La empresa que resulte adjudicataria del Contrato designará una persona de su organización que asumirá el rol de Responsable de los Servicios, y, a su vez, será el/la coordinador/a de las distintas materias que integren el mismo.

Alde bakoitzak proiektuaren koordinazioaren pertsona arduradun bat izendatuko du, interlokutore bakar bezala jardungo duena.

Cada una de las partes designará a una persona responsable de la coordinación del proyecto que actuará como único interlocutor.

Aplikazioaren lehenengo bertsioa entregatzeko epea lau astekoa da, kontratua sinatzen denetik edo aurrekontua onartu izanaren idatzizko jakinarazpen ofizialetik, betiere bezeroak izendatutako pertsonek eskuragarri jarri badituzte webgunea garatzeko eskatutako datuak.

El plazo para la entrega de la primera versión de la aplicación son cuatro semanas a partir de la fecha de firma del contrato o notificación oficial por escrito de la aprobación del presupuesto, siempre y cuando se hayan puesto a disposición, por parte de las personas designadas por el cliente, los datos requeridos para el desarrollo del sitio web.

Bezeroak bi aste izango ditu, lehen bertsioa jaso ondoren, egiaztatzeko diseinuak bete egiten dituela irudi korporatiboaren eskakizunak, deskribapen-testuek argi islatzen dutela komunikatu nahi duten mezua, eta erakutsitako datuak zuzenak direla. Iruzkinak jakinarazi ondoren, enpresa adjudikaziodunak adostutako aldaketak egingo ditu hurrengo bi asteetan, eta azken produktua entregatuko du bezeroak onar dezan. **Proiektuaren iraupen osoa ez da zortzi astekoa baino luzeagoa izango.**

Una vez recibida la primera versión por el cliente, éste dispondrá de dos semanas para verificar que el diseño cumple los requisitos de su imagen corporativa, que los textos descriptivos reflejan fielmente el mensaje a comunicar y que los datos mostrados son correctos. Una vez notificados los comentarios, la empresa adjudicataria ejecutará las modificaciones acordadas en las siguientes dos semanas y entregará el producto final para aprobación del cliente. **La duración total del proyecto no superará las ocho semanas.**

Bezeroak datuen egiazkotasuna zertifikatuko du, horretarako sortutako Adierazpenen Gutun bat sinatuta.

El cliente certificará la veracidad de los datos suministrados mediante la firma de una Carta de Manifestaciones creada para tal efecto.

Kontratistak baldintza-agiri honen xede diren beharrezko lan guztiak egingo ditu, eta kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa hartuko du, Eibarko Udaleko kontratuaren arduradunaren oniritziarekin.

El Contratista realizará todos los trabajos necesarios objeto de este pliego, y será plenamente responsable de su ejecución a satisfacción de el/la responsable del contrato por parte del Ayuntamiento de Eibar.

Kontratistak jarriko du beharrezkoa den giza taldea.

El Contratista aportará el equipo humano necesario.

Zerbitzura atxikitako langile guztiek gaitasun eta prestakuntza tekniko egokia izango dute.

Todo el personal adscrito a la realización del trabajo tendrá la capacidad y preparación técnica adecuada.

4. BERME-EPEA

Softwareak, martxan jartzen denetik, berme bat izango du urtebetean detektatutako erroreen aurrean.

4. PLAZO DE GARANTÍA

El software estará cubierto por una garantía frente a errores detectados durante un año, desde la puesta en marcha del mismo.

5. KONTRATISTAREN ETA EIBARKO UDALAREN ARTEKO HARREMANAK

Zerbitzua garatu bitartean, enpresa adjudikaziodunak Eibarko Udalarekin dituen zuzeneko harreman guztiak Eibarko Udaleko kontratuaren arduradunaren bitartez eta hark eskuordetutako pertsonaren bitartez izango dira.

5. RELACIONES ENTRE EL CONTRATISTA Y EL AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Durante el desarrollo del servicio, todas las relaciones directas de la empresa adjudicataria con el Ayuntamiento de Eibar se desarrollarán a través de la persona Responsable del contrato del Ayuntamiento de Eibar y en quien esta última delegue.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **817d18f926f917aeaafd33c777c6382643a01d1a**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500003227**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
PEDRO IRUSTA MENDIETA	**08/07/2025 10:27:08**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Eibarko Udaleko kontratuaren arduradunak edozein unetan eskatu ahal izango du zerbitzuaren egikaritze-egoera berrikusteko.

6. ESTANDARRAK ETA LEGE-BETEKIZUNAK

Irisgarritasuna eta erabilgarritasuna

Web-plataformak legez ezarritako irisgarritasun- eta erabilgarritasun-eskakizunak beteko ditu. Horren harira, administrazio publikoen webguneetarako legez ezarritako irisgarritasun-mailak betetzen direla bermatuko da (1112/2018 Errege Dekretua, irailaren 7koa, Sektore publikoko gailu mugikorretarako aplikazioen eta webguneen irisgarritasunari buruzkoa): une honetan, AA maila, World Wide Web kontsortzioko WAI/WCAG-ek definitua.

Datu pertsonalen babesa

Adjudikaziodunak bermatuko du datu pertsonalak babesteko indarrean dauden arauak eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziak argitaratutako gomendio aplikagarriak betetzen direla. Horrekin lotuta, enpresak isilpean gordeko du Eibarko Udalak emandako informazioa, eta konpromisoa hartu beharko du informazio hori proiektua gauzatzeko bakarrik erabiliko duela, eta ez beste ezertarako.

Enpresak konpromisoa hartzen du —Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari jarraituz—, zerbitzua egin ondoren, Udalak emandako edozein fitxategi pertsonal itzultzeko edo suntsitzeko, kopiarik egin gabe eta datu horien berri pertsona fisiko edo juridikoei eman gabe, Udalaren berariazko baimenarekin ez bada.

Informazioa bermatuko zaie eragindako pertsona posible guztiei, pribatutasunaren, erabilera-arauen eta abarren inguruko lege-oharrei buruz.

7. KONTRATUA EGITEAN BETE BEHARKO DIREN HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan ezarritako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzeko araudiaren mende dago, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 6. eta 7. artikuluetan arautua, eta baita Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen eta Eibarko Udalak bere eskumenak erabiliz garatutako araubidearen mende ere: Udal Ordenantza, Eibarren euskara erabiltzea arautzeari buruzkoa.

La persona Responsable del contrato por parte del Ayuntamiento de Eibar podrá exigir, en cualquier momento, la revisión del estado de ejecución del servicio.

6. ESTÁNDARES Y REQUISITOS LEGALES

Accesibilidad y usabilidad

La plataforma web cumplirá con los requisitos de accesibilidad y usabilidad establecidos legalmente. En ese sentido, se garantizará el cumplimiento de los niveles de accesibilidad impuestos por ley para las páginas web de las administraciones públicas (Real Decreto 1112/2018, de 7 de septiembre, sobre accesibilidad de los sitios web y aplicaciones para dispositivos móviles del sector público): en este momento, el nivel AA definido por el WAI/WCAG del consorcio World Wide Web.

Protección de datos personales

El adjudicatario asegurará el cumplimiento de las normas vigentes de protección de datos personales y de las recomendaciones publicadas por la Agencia Española de Protección de Datos que sean de aplicación. En ese sentido, la empresa guardará de manera confidencial la información proporcionada por el Ayuntamiento de Eibar, y se deberá comprometer a utilizar dicha información para la ejecución del proyecto, y únicamente para ese fin.

La empresa se compromete a que, siguiendo lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, devolverá o destruirá cualquier fichero personal proporcionado por el Ayuntamiento, una vez realizado el servicio, sin realizar ninguna copia y sin que se haya informado sobre esos datos a ninguna persona física o jurídica, si no es con el consentimiento expreso del Ayuntamiento.

Se garantizará la información a todos los posibles afectados de los términos legales sobre privacidad, normas de utilización, etc.

7. CONDICIONANTES LINGUÍSTICOS QUE DEBERÁN CUMPLIRSE DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO

Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad linguística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su articulo 6º y regulado por la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en sus artículos 6 y 7, así como por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de normalización del uso del euskera, así como por la normativa desarrollada por el Ayuntamiento de Eibar en el ejercicio de sus competencias: Ordenanza Municipal para la regulación del uso del euskera en Eibar.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **817d18f926f917aeaafd33c777c6382643a01d1a**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500003227**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
PEDRO IRUSTA MENDIETA	**08/07/2025 10:27:08**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Ondorio horietarako, udal araudia bete beharko da, Eibarko Udaleko Euskara Sailaren txostenean adierazitakoaren arabera.

Nolanahi ere, uneoro errespetatuko dira herritarren hizkuntza-eskubideak.

8. EGIKARITZE-BALDINTZAK HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERARI DAGOKIONEZ

Agiri honetan ezarritako betebeharrak egikaritze-baldintza berezi gisa ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratuaren egikaritzean.

Kontratu hau hizkuntza-ofizialtasun bikoitzeko araudiaren pean dago. Horregatik, zerbitzu-hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira.

Hizkuntza paisaia

Aplikazioa euskaraz eta gaztelaniaz garatuko da; sarrera-hizkuntza nagusia euskara izango da. Hizkuntza aldatzean, erabiltzaileak eduki bera bisualizatuko du hautatutako hizkuntzan.

Dokumentuak Eibarko Udalari aurkeztea

Zerbitzuaren dokumentuak (azterlanak, txostenak, proiektuak, aurrekontuak, fakturak, eta abar) euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, baita sortware desberdinen testu- eta soinu-interfaceak ere.

Hizkuntza-irizpideen jarraipena

Eibarko Udalak enpresa adjudikaziodunak eskainitako zerbitzuaren jarraipena egingo du kontratuaren egikaritze-fase osoan zehar, indarraldiko legeria bete eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

Baldin eta zerbitzua ematean Udalak uste badu ez direla baldintza teknikoen agirian ezarritako hizkuntza-obligazioak bete, egindako hutsegiteetatik eratorritako prozedura jarriko du abian (kontratua azkentzea edo zigorrak ezartzea, kasuaren arabera).

9. GENERO-BERDINTASUN IRIZPIDEAK

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen zehaztapenak beteko dira. Horretarako, garatzen diren dokumentu eta jardueretan bermatuko da genero-berdintasunaren alderdiak sartuko direla, gerta

A estos efectos, deberá darse cumplimiento a la normativa municipal, conforme a lo señalado en el informe del departamento de Euskera del Ayuntamiento de Eibar.

En todo caso, se respetarán siempre los derechos linguísticos de la ciudadanía.

8. CONDICIONES DE EJECUCIÓN EN RELACIÓN AL USO DE LAS LENGUAS OFICIALES

Las obligaciones impuestas en este pliego se establecen como condiciones especiales de ejecución y deberán ser acreditadas en el marco de ejecución del contrato.

Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad linguística. Es por ello que las lenguas de servicio serán el euskera y el castellano.

Paisaje linguístico

La aplicación deberá desarrollarse en euskera y en castellano, siendo el idioma principal de entrada el euskera. Al cambiar de idioma, la persona usuaria visualizará el mismo contenido en el nuevo idioma seleccionado.

Presentación de los documentos al Ayuntamiento de Eibar

Los documentos producto de la prestación del servicio (estudios, informes, proyectos, presupuestos, facturas, etc.) se realizarán en euskera o en los dos idiomas oficiales, incluidos los interfaces textuales y sonoros de los diferentes softwares.

Seguimiento de los criterios linguísticos

El Ayuntamiento de Eibar realizará el seguimiento del servicio ofrecido por la empresa adjudicataria durante toda la fase de ejecución del contrato, con el fin de cumplir la legislación vigente y garantizar los derechos linguísticos de la ciudadanía.

Si durante la prestación del servicio, el Ayuntamiento considera que no se han cumplido con las obligaciones linguísticas establecidas en el pliego de condiciones técnicas, pondrá en marcha el procedimiento derivado de las infracciones cometidas (finalización del contrato o imposición de penalidades, según corresponda).

9. CRITERIOS DE IGUALDAD DE GÉNERO

Se cumplirán las determinaciones de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Para ello, se garantizará la inclusión de aspectos de igualdad de género en los documentos y actividades que se desarrollen, con objeto de evitar

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **817d18f926f917aeaafd33c777c6382643a01d1a**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500003227**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
PEDRO IRUSTA MENDIETA	**08/07/2025 10:27:08**

daitezkeen hizkuntza- eta irudi-diskriminazio posibleak saihesteko.

las posibles discriminaciones linguísticas y de imagen que pudieran darse.

10. KOSTUEI BURUZKO INFORMAZIOA

Ezingo da inolako gainkosturik sartu lizitazio-prezioan. Eskaintzak agiri honetan eskatutako zerbitzu guztiak eman behar ditu.

Garraio-gastuak, udal lokaletan entregatzearen gastuak eta gainerako gastuak lizitazioan sartuta egongo dira.

10. INFORMACIÓN SOBRE COSTES

No será posible incluir ningún sobrecoste sobre el precio de licitación. La oferta deberá cubrir la totalidad de los servicios exigidos en el presente pliego.

Los gastos de transporte, entrega en las dependencias municipales y el resto de gastos que se pudieran ocasionar, estarán incluidos en el tipo de licitación.

Komunikazioko eta Gardentasuneko teknikaria

El Técnico de Comunicación y Transparencia

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **817d18f926f917aeaafd33c777c6382643a01d1a**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500003227**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
PEDRO IRUSTA MENDIETA	**08/07/2025 10:27:08**